



LANDAOLA

SARIAK

IX. LANDAOLA SARI BANAKETA EKITALDIA
PRENTSA DOSSIERRA

AURKIBIDEA

Landaola Federazioa	3
IX. Landaola sariak	4
Saridunak	
Erakunde Pribatuaren saria	
BIZI-IRAUN.	5
Erakunde Publikoaren saria	
ITSASO HERRIA.	6
Emakumeak Landa Eremuan Saria	
Maitane Beristain Salegi.	7
Urteetako ibilbideari saria	
Aldaba Zahar Elkartea.	8
Sarietarako hautagaiak	10/21
Dokumentazio eta weborriak	22

LANDAOLA FEDERAZIOA

Landaola, Gipuzkoako landa eremuaren garapenaren alde lan egiten duen elkarte da. Irabazi asmorik gabeko erakunde hau, Gipuzkoako sei Landa Garapen Elkartek osatzen dute: Behemendik, Deba-Garaiak, Debemenek, Goimenek, Tolomendik eta Urkomek.

Landa ingurunearen iraunkortasuna bermatu eta sustatu asmoz, azken hamarkadetan tokian tokiko Landa Garapen elkarteak gaur egungo behar eta baldintzetara egokitzen joan izan dira. Euskal Autonomia Erkidego mailan, lurraldeka, federazioetan antolatuta egiten da elkarlana eta Gipuzkoako lurraldean Landaola Federazioaren bidez. Bestalde, Landagune Mahaiak erakunde desberdinak elkartzen ditu. Aipatutako tokiko sei Landa Garapen Elkarrekin batera, mahai horretan parte hartzen dute Hazi Fundazioko, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Landa Garapen ordezkariak.

Elkarrekin landa-ingurune bizi eta lehen sektore bizi baten alde lanean dihardute. Erronka handiko lana, ezbairik gabe. Landaolan badakite gaur ereindako haziak biharko fruituak ematen dituela.



LANDAOLA
GIPUZKOAKO FEDERAZIOA

IX. LANDAOLA SARIAK

Aurten ere, Gipuzkoako landa garapen proiektuei errekonozimendua egin nahian, Landaola Federazioak IX. Landaola Sariak antolatu ditu. Lau sari emango dira:

Erakunde Pribatuaren saria
BIZI-IRAUN
Oiertzungo Baserritar Elkarte.

Erakunde Publikoaren saria
ITSASO HERRIA
"Sindikatoa" Herri denda.

Emakumeak Landa Eremuan saria
Maitane Beristain.

Urteetako ibilbideari saria
Aldaba Zahar Elkarte.

Ondorengo orrialdeetan jaso da izendatutako proiektuen inguruko informazio zabalagoa.

ERAKUNDE PRIBATUAREN SARIA

Bizi-Iraun

Oiartzungo Baserritar Elkarte



Elkarteak herriko nekazari eta abeltzainen sektorea sustatzea eta indartzea du helburu. Elkartearen xede nagusia sektoreko profesionalen laguntza ematea da, haien beharrei erantzuteko eta egoera ekonomiko zein soziala hobetzeko bideak sustatuz. Aldi berean, ezinbestekoak diren baserriak eta haiei lotutako jarduera eta bizimoduak balioan jarri nahi ditu, desagerpena saihestu eta etorkizunerako jarraipena bermatzeko. Era berean, Bizi-Iraunek baserriaren balio estrategikoa azpimarratzen du: elikadura-sistemaren oinarria izateaz gain, paisaiaren zaintza, biodibertsitatearen babesa eta komunitatearen kohesioa bermatzen dituen bizimodua da.

Elkartearen baitan, azpisektore desberdinetako baserritarrak elkartzen dira, sektorearen erronkei modu kolektiboan erantzuteko eta hobekuntza-

proposamenak garatzen laguntzeko. 2025 urtean, elkartearen ideietatik garatutako bi egitasmo esanguratsu jarri dira martxan: 1- Herriko gazteentzako udako praktiken programa: herriko sei gaztek hilabeteko egonaldia egin dute elkarteko bost kideren ustiategietan, lehen sektorea gertutik ezagutu eta nekazaritza lan esperientzia zuzenean bizitzeko aukera izan dutelarik. 2- Haragi-zirkuitu motza: herriko baserrietan gizendutako txekorren haragia Oiartzunen bertan merkaturatzeko ekimena da. Proiektu honen bitartez tokiko ekoizpena eta kontsumoa sustatu nahi dira, salmenta zuzena bultzatu eta herrian ekoizturiko ekoizpenak bertan geratzea bilatzen duelarik.

Info gehiago:
685 72 78 83

ERAKUNDE PUBLIKOAREN SARIA

Itsaso Herria

“Sindikatoa” Herri denda



Itsasoko Alegia auzoko Sindikatoa dendak formatu berritzaile batekin zabaldu ditu atea. Izan ere, saltzailerik gabeko denda autonomia da. Ekoizleen eta bezeroen arteko elkargune izateko jaio da: ekoizleek zuzenean hornitzen dute denda, eta bazkide diren herritarrek, behar bezala identifikatuta, nahi duten unean sar daitezke erosketak egitera.

Dendaririk gabeko formula zerbitzuari eusteko eta haren bideragarritasuna indartzeko hautatu da. Itsaso 600 biztanle inguruko herria denez, gertuko zerbitzua funtsezkoa da eguneroko erosketak herrian bertan egin ahal izateko, autoa hartu beharrik gabe, eta aldi berean tokiko ekoizpenari irteera emateko.

Zerbitzuak, beraz, erosketak erraztuko dizkie herritarrei, bereziki mugikortasun zailtasunak dituztenei edo egunerokoan denbora justuarekin dabilatzanei. Ekoizleentzat ere abantaila nabarmenak ditu, produktuak

saltzeko gune fisiko egonkorra eskaintzen baitie. Horrela, Sindikatoa denda tokiko ekoizpena balioan jartzeko eta merkaturatze-bide laburrak indartzeko tresna eraginkorra da.

50 bazkiderekin ekingo dio ibilbideari, gehienak itsasoarrak. Ezkioko, Gabiriako eta Ormaiztegiko erroldatuek, baita Itsason lan egiten dutenek ere bazkide izateko aukera izango dute.

Azken batean, Sindikatoa landa-eremuko jasagarritasunaren aldeko apustu praktikoa da: tokiko ekonomia aktibatzen du, ekoizpena balioan jartzen du, zerbitzuak hurbiltzen ditu, eta komunitatearen kohesioa sendotzen du.

Info gehiago:

<https://gitb.eus/itsaso>

www.itsaso.eus

Instagram: @itsasoko_udala

udala@itsaso.eus

943 47 77 90

EMAKUMEAK LANDA EREMUAN SARIA

Maitane Beristain Salegi



Maitane Beristain Salegi Lastur auzoan bizi eta lan egiten duen landa-emakumea da. 2004an, Lastur auzoaren biziraupenari eta dinamizazioari lotzeko erabakia hartu zuen Lasturko aterpetxearen kudeaketan murgildu zenean. Ordutik, egunez egun, taberna eta landetxearen ardura bere gain hartu eta auzoaren bihotzean kokatutako zerbitzu-sareari eutsi dio.

Bere lana ez da ostatu-zerbitzua eskaintzera mugatzen: bisitariak hartzen ditu, auzoaren historia eta ingurunea ezagutarazten ditu, bisita gidatuak eta tailerrak antolatzen ditu, eta espazio komun eta publikoak aktibo mantentzen laguntzen du. Horri esker, Lastur ez da soilik bisita puntualerako leku, harremanak sortzen diren espazio bizia baizik, bai auzotarrentzat, bai kanpotik datozenentzat. Horri esker, auzoak jarduera ekonomikoa, ikusgarritasuna eta

etorkizunerako aukerak mantentzen ditu. Gainera, 2018an, Ainhoa Gallardo ekintzailearekin batera emakumeek osatutako kooperatiba sortu zuen, lanaren antolaketa partekatuagoa eta iraunkorragoa bilakatzeko. Izan ere, landa-eremuaren errealitatea da emakumeak, askotan, bakardadean eta lan-karga handiarekin aritzen direla. Baina kooperatibaren bidez, bazkideek eskaintzen dituzten ostatu-, jatetxe- eta harrera-zerbitzuetan, jarduerak eta esperientziak elkarlanean garatzen dituzte, komunitatea eta tokiko ekonomia indartuz. Landa-emakumeek komunitate oso baten orekan eta biziraupenean duten eraginaren adibide garbia da Maitane.

URTEETAKO IBILBIDEARI SARIA

Aldaba Zahar Elkartea



Aldaba Zahar ustiatagia, urte luzez Xabier Almandozen gidaritzapean, ez da ekoizpen hutsera mugatu; izan ere, ustiatagi txiki baten bideragarritasuna, tokiko elikadura-katearen sendotzea eta gizartean nekazariaren lana berriro ere balioan jartzea uztartu ditu. Horregatik, nekazaritza eredu aurrerakoiaren eta konprometituaren adibide argia izan da Tolosaldean. Artean, intentsifikazio-eredua nagusi zen garaian hasi zen Aldaba Zaharreko proiektua, eta eskala txikiko, gertuko eta lurraldearekiko lotutako planteamendua jarri zuten erdigunean. Tokiko merkatuari eta harreman zuzenari lehentasuna ematean zen helburua, kontsumitzaile eta ekoizleen arteko lotura zuzenak sendotuz. Ustiatagiak, gainera, nekazaritza ekintza ekonomikoa ez ezik, ekintza soziala eta politikoa ere badela erakutsi du, ibilbidean zehar landa ingurunearen biziraupena,

elikadura-burujabetza eta lurraren zaintza aldarrikatu baititu. Ikuspegi horiek eragin zuzena izan zuten inguruko ekoizleengan eta Tolosako kontsumo ereduaren inguruko eztabaidetan. Hori dela eta, gaur egun normalizatuagoak diren planteamendu askoren aitzindari isila izan da Aldaba Zahar Elkartea. Proiektua, gainera, kanpotik etorritako gazteen ekimen kolektiboaren emaitza da. Hiritik landara egindako jauzi kontziente baten bidez, nekazaritza-eredu familiar tradizionalarekin hautsi eta nekazaritza eta ekologia balio zentral gisa zituen proiektua martxan jarri zuten, komuna moduan antolatuta eta sektorearekiko konpromiso argiarekin. Horregatik, Biolur Elkarteko kide aktiboak izan dira, Manttangorri proiektuaren sustatzaileak eta, urte luzez, Tolomendiko batzordearen parte.

SARIETARAKO HAUTAGAIK

Landaola Federazioa osatzen duten sei landa garapen elkarteetako ordezkariak, Landaola Sarien IX. edizioko oinarriak, irizpideak eta saritutako proiektuak adostu dituzte. Sariak emateko garaian, honako irizpideak hartzen dira kontuan: proiektuek eredugarri izateko dituzten baldintzak, proiektuak eragiten dion landa-eremuko biztanleria eta sortutako lanpostu kopurua, zabaltzeko duen aukera eta izan duen oihartzuna, edota eskualdeko landa-garapen elkartearekin izandako lankidetzak.

Ondorengo orrialdeetan, izendatutako proiektuei buruzko informazio zabalagoa jaso da.

ERAKUNDE PRIBATUAREN HAUTAGAIK

Behemendi

Bizi-Iraun Oiartzungo Baserritar Elkarte



Elkarteak herriko nekazari eta abeltzainen sektorea sustatzea eta indartzea du helburu. Elkartearen xede nagusia sektoreko profesionali laguntza ematea da, haien beharrei erantzuteko eta egoera ekonomiko zein soziala hobetzeko bideak sustatuz. Aldi berean, ezinbestekoak diren baserriak eta haiei lotutako jarduera eta bizimoduak balioan jarri nahi ditu, desagertzea saihestu eta etorkizunerako jarraipena bermatzeko. Era berean, Bizi-Iraunek baserriaren balio estrategikoa azpimarratzen du: elikadura-sistemaren oinarria izateaz gain, paisaiaren zaintza, biodibertsitatearen babesa eta komunitatearen kohesioa bermatzen dituen bizimodua da. Elkartearen baitan, azpisektore desberdinetako baserritarrak elkartzen dira, sektorearen erronkei modu kolektiboan erantzuteko eta hobekuntza-

proposamenak garatzen laguntzeko. 2025 urtean, elkartearen ideietatik garatutako bi egitasmo esanguratsu jarri dira martxan: 1- Herriko gazteentzako udako praktiken programa: herriko sei gaztek hilabeteko egonaldia egin dute elkarteko bost kideren ustategietan, lehen sektorea gertutik ezagutu eta nekazaritza lan esperientzia zuzenean bizitzeko aukera izan dutelarik. 2- Haragi-zirkuitu motza: herriko baserrietan gizendutako txekorren haragia Oiartzunen bertan merkaturatzeko ekimena da. Proiektu honen bitartez tokiko ekoizpena eta kontsumoa sustatu nahi dira, salmenta zuzena bultzatu eta herrian ekoizturiko ekoizpenak bertan geratzea bilatzen duelarik.

Info gehiago:

685 72 78 83

ERAKUNDE PRIBATUAREN HAUTAGAIK

Deba Garaia

Zubillaga Hiltegia



Oñatiko Zubillaga Hiltegiak animaliak errepidez garraiatzeko ibilgailuak garbitu eta desinfektatzeko zerbitzu aitzindaria jarri du martxan. Izan ere, duela sei urte indarrean sartu zen araudiaren arabera, sektoreko profesionalak nahitaez desinfektatu behar dituzte ibilgailuak animaliak -bizirik edo hilik- garraiatu ondoren; horri erantzun eraginkorra emateko sortu da ekimena.

Hori dela eta, Zubillaga Hiltegiaren helburu nagusiak bi dira: batetik, gaixotasun infekziosoen transmisio-kateak etetea eta, bestetik, baserritarrei legea betetzeko gune hurbila eta eraginkorra eskaintzea.

Zerbitzua irekia da, bai hiltegiko ohiko erabiltzaileentzat, bai kanpoko profesionalentzat ere, lehen sektoreko profesional guztien lana

erraztu nahi baita. Prozesua bi urratsetan banatzen da: lehenik, erabiltzaileak berak egiten duen garbiketa sakona, ordutegi librean; ondoren, Zubillagako langileek desinfekzio profesionala egiten dute astelehenetik ostiralera. Etorkizunean zerbitzua osatzeko asmoa dute, ibilgailuen garbiketan erreferente gisa finkatzeko eta ekoizpen-katearen funtsezko atala bilatzeko, beti ere, abeltzainen beharretara egokitzen jarraituz.

Info gehiago:

zubillagahiltegia.com

Facebook:

Zubillaga-Oñati Hiltegi eta Zatitze Zerbitzua

Youtube: @zubillagahiltegia1087

bulegoa@zubillagahiltegia.com

943 78 21 93 / 688 760 273

ERAKUNDE PRIBATUAREN HAUTAGAIK

Debemen

Basagune Kontsumo Elkartek Ekologikoa



Basagune Eibarren sortutako kontsumo elkarte ekologikoa da, Azataporruek kontsumo elkartean oinarritu dena. Izan ere, elkarte horrek urteetan egin du lan elikadura ekologikoaren alde, baina herritar gehiagorengana iristeko eta eragin soziala handitzeko sortu da Basagune, zuzeneko salerosketa gunea.

Ohiko kontsumo-ereduek sarritan zaildu egiten dute produktu ekologikoetara sarbidea. Basagunek, ordea, alternatiba erreal, hurbil eta eskuragarria eskaintzen die herritarrei; aldi berean, eskualdeko ekoizle ekologikoentzat merkaturatze-bide egonkor eta bidezkoa bermatzen du. Horrela, tokiko ekoizpena eta kontsumoa lotu, eta bitartekaritza murrizten da. Ekimenak, gainera, kontsumo arduratsu eta jasangarriaren aldeko apustua sendotzen du, eta

Eibarren elikadura ekologikoa eguneroko aukera bihurtzen laguntzen du. Kontsumitzaileen partehartzea eta kontzientzia kolektiboa sustatzeko tresna ere bada, eta, aldi berean, landa-eremuarekin lotutako ekintzaitza kolektibo eta iraunkorra posible dela erakusten du.

Basagune herriko merkatu plazan kokatutako dendan gauzatzen da; bertan, eskualdeko eta inguruko ekoizleen produktu ekologikoak eskaintzen dira nagusiki. Proiektua baserriarren eta kontsumitzaileen arteko elkarlanetik eraikia da, komunitatearen indarra ardatz hartuta.

Info gehiago:

egoaizia.org/eu/basagunea

Instagram: @basagunea

basatapagunea@gmail.com

652 74 37 37

ERAKUNDE PRIBATUAREN HAUTAGAIK

Goimen

Basoberri (Soraluze baserria, Zegama) Ana Muñoa



Ana Muñoa

Basoberri lurraren birmoldaketa sustatzeko eta ustiategi jasangarria sortzeko helburuarekin jaio zen. Proiektuaren atzean Ana Isabel Muñoa dago. Muñoak, ingeniartza elektronikoa ikasi bazuen ere, landa ingurunera itzuli eta nekazaritza bere proiektu profesional bilakatzea erabaki zuen. Lurzoruaren osasuna eta biodibertsitatea lehenesten dira Basoberrin. Horren adierazgarri da pinudi-eremu bat nekazaritzarako lur emankor bihurtzeko abiatu duten eraldaketa-prozesua: lehen sektoreari aukera berriak irekitzeaz gain, tokiko paisaia biziberritu eta lurraren funtzio ekologikoak indartzea du xede. Soraluze baserrian frutikultura eta basogintza

jasangarria uztartzen dira, tokiko produktuen aldeko apustu argiarekin eta garaian garaiko kalitatezko ekoizpenarekin, hala nola basafruitua ekologikoeekin. Gainera, Basoberri WWOOF sareko kidea da; horri esker, boluntario eta praktikalarientzako ikasketa- eta truke-gune ere bada. Horrek proiektua laborategi bizia bihurtzen du, non ezagutza eta lan egiteko modu jasangarriak partekatzen diren.

Info gehiago

goiberri.eus

Instagram: @basoberri_zegama

ERAKUNDE PRIBATUAREN HAUTAGAIK

Tolomendi

Soronea Miriam Saldias eta Igone Saldias



Familia-proiektuari jarraipena emanez, egun, Miriam Saldias eta Igone Saldias dira Soronea egitasmoaren gidariak. Soronea produktu ekologikoak, osasuntsuak eta bertakoak eskaintzen dituen proiektua da: barazkiak, fruta freskoa, arrautzak, kosmetika naturala eta garbitasun-produktuak eskaintzen ditu, kontsumo arduratsua sustatzeko helburuarekin. Proiektua bi ardatzetan egituratzen da: alde batetik, familiaren Soronea baserria. Bertan ekoizten dira produktu nagusiak; bestetik, Tolosako denda fisikoa eta online salmenta-kanala, ekoizpena zuzenean kontsumitzaileengana eramateko. Horrela, ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko distantzia laburtu, eta gardentasuna eta

konfiantza indartzen dira. Gainera, Soroneak Gipuzkoako eta inguruko beste ekoizle ekologikoekin egiten du lan, beraiek ekoizten ez dituzten produktuei lekua eginez. Modu horretan, tokiko sare ekonomikoa indartu eta kontsumo gertuko eta jasangarriaren aldeko komunitatea ehuntzen du. Soronean gertuko produktuari garrantzi berezia ematen zaio, tokiko nekazariak laguntzeko, karbono-aztarna murrizteko eta janaria ahalik eta freskoena eta nutritiboena dela ziurtatzeko.

Info gehiago:

soronea.eus/gu

soronea.eus

Instagram: [@soronea_ekologikoa](https://www.instagram.com/soronea_ekologikoa)

943 01 68 68

ERAKUNDE PRIBATUAREN HAUTAGAIK

Urkome

Luzaro - Errezilgo Azoka / Amaia Alberdi



Hiru hamarkadako ibilbidearen ondoren, Errezilgo Azokak etapa berria abiatu du Luzaro izenarekin, Amaia Alberdi Elola azpeitiarraren eskutik. 2025eko abenduan, Errezilgo Azokak bere jarduna eten ondoren irekitako eraldaketa zentroaren ustiapenerako lizitazio publikoa Alberdiri esleitu zitzaion. Ordutik, Luzaro ekimenak Errezilgo eraldaketa zentroan elikadura jasangarria, tokiko ekonomiaren sustapena eta ingurumenaren zaintza uztartzen ditu, garaiko uzta eraldatuz herriari zerbitzua eskaintzeko eta kontsumitzaileen kontzientzia pizteko.

Proiektuak lau oinarri nagusi ditu: ekoizpen arduratsua, pertsonak eta ingurunea erdigunean jarritz; gertuko lehengaien erabilera, Euskal Herriko ekoizleei lehentasuna emanez; pertsonen tamainako etxaldearen aldeko apustua; eta ekonomia sozial solidarioa, konfiantza eta komunitatean oinarritutako harremanak sustatzeko.

Luzaroren jardura nagusia kontserba-produktuen elaborazioa da, hala nola fruitu-mermeladak, sagar-dultzea eta tomate-saltsa, eta ekoizpena zuzenean eraldaketa zentroan bertan egiten da, ingurumenarekiko errespetuz. Horrez gain, proiektuak ekoizleentzako zerbitzuak eskaintzen ditu: soberakinak balioan jartzen ditu kontserba moduan eta komunikazio-lanaren bidez elikadura-burujabetzaren inguruko kontzientzia zabaltzen du. Ekonomia zirkularraren printzipioetan oinarrituta, Luzaro proiektuak hondakin gutxi sortzea eta bestela galduko lirakeen lehengaiei bigarren bizitza ematea du helburu, tokiko elikadura-sistema jasangarriago baterantz urrats sendoa eginez.

Info gehiago:

luzaro.errezilgoazoka@gmail.com

638 71 92 47

ERAKUNDE PUBLIKOAREN HAUTAGAIK

Igeldoko Toki Entitate Txikia



Igeldoko Toki Entitate Txikia (TET) Donostia, Orio eta Usurbil artean kokatutako Igeldoko herriaren errealitate geografiko, sozial eta kulturalari erantzuteko sortutako erakundea da. 10,4 km²-ko lurraldea eta 1.100 biztanle inguruko komunitatea hartzen ditu, eta nekazal izaera euskalduna duen herria da, herri-kontzientzia sendoa eta herri txiki baten antolaketa, ohitura eta harreman sare biziak mantentzen dituen. Lurraldea morfologikoki bi isurialdek banatzen dute: hegoaldekoa A8 autopistarako hedatzen da, eta iparraldekoa itsaslabar malkartsuetan amaitzen da. Abenduaren 19an eratu zen ofizialki Igeldoko TET, eta Foru Aldundiaren onarpena jaso ondoren, 2025ean lehen aldiz bere aurrekontu propioa lantzeko aukera izan

du, tokiko kudeaketa autonomoa sendotuz. Gainera, Behemendi Elkarteko kide gisa onartua izan da, bailarako garapen eta lankidetzaren sareetan parte hartuz.

Bere jardunean herriko proiektuak sustatu eta gauzatzeko gaitasuna (IKO eta itsas aurreko egoitza bezalako ekimenekin), herritarren parte-hartze aktiboa gobernantzan eta eskualdeko erakundeetan egindako ekarpen eraginkorra nabarmentzen dira. Ekintza ildo horiek komunitatearen antolaketa-indarra, nortasun propioa eta etorkizunera begirako ikuspegiaren isla dira.

Info gehiago:

www.igeldo.eus

herrikontseilua@gmail.com / idazkaritza@igeldo.eus

943 481819 // 606 311 734 // 688 66 03 23

ERAKUNDE PUBLIKOAREN HAUTAGAIK

Leintz Gatzagako Udala



Leintz Gatzagako Udalak, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin, zerbitzu anitzeko eraikina sortu du, eta dagoeneko martxan da. Eraikinaren alde batean ludoteka, liburutegia, euskaltegi zerbitzua eta hitzaldi edo aurkezpenetarako aretoa daude. Ondoko lokalean, bilera-gela, podologia, ile-apaindegi zerbitzua, fisioterapia zerbitzua eta kultura taldeentzako bilgunea topa daitezke. Beheko solairuan, aldiz, gaztetxoentzako lokala eta gimnasioa eraiki dira. Eraikina sortzeko inbertsioari esker herrian bertan lortutako onurak anitzak izan dira. Eraikin berriak onura nabarmenak ekarri dizkio herriari. Besteak beste, bizilagunentzat beharrezkoak diren zerbitzu berriak sortu dira, irisgarritasuna bermatuta. Gainera, zerbitzuak

espazio berean biltzeak energia-aurrezpena sustatu eta belaunaldi ezberdinen arteko topagune naturala sendotu du. Finean, landa-eremuko udalerrietarako eredu bilakatu da Leintz Gatzagako proiektua. Gimnasioari dagokionez, Athlon enpresa kontratatu da zerbitzua osatu eta indartzeko: espezialistak astean lau orduz egongo dira herritarren beharrei erantzuteko eta jarduera fisikoa sustatzen duten ekintzak antolatzen. Horrela, gimnasio berria bizi-kalitatea hobetzeko tresna garrantzitsu bihurtu da, osasuna erdigunean jarritz.

Info gehiago:

www.leintzgatzaga.eus
udala@leintzgatzaga.eus
943 71 47 46

ERAKUNDE PUBLIKOAREN HAUTAGAIK

Itziarko Auzo Udala



Itziarko
Auzo Udala

Urte luzez Itziarko eskola Debako ikastetxearen luzapena izan ondoren, Itziarko Auzo Udalaren ekimenari eta azken 20 urteotako etengabeko lan eta aldarrikapenari esker, 2026-2027 ikasturtean lehen aldiz Itziarrek bere Eskola Txiki propioa izango du. Horri esker, 12 urte bitarteko herriko ikasleek hezkuntza herrian bertan jasotzea bermatuko da eta horrek eragin positibo zuzena izango du egunerokotasunean, herri izaeran eta komunitatea sortzean.

Eskola Txikia Itziarko Auzo Udalak sustatzen dituen balioekin bat etorriko da, eta, ondorioz, bi proiektuak elkar elikatu eta indartuko dira, herriaren beharretara egokitutako hezkuntza-eredu baten bidez. Transmittituko diren balio nagusiak

belaunaldien arteko transmisioa, ingurumenaren zaintza eta parekidetasuna izango dira. Gainera, herritar guztiak eskolako egitasmoetan parte hartzera bultzatu nahi dira, Eskola Txikia herriaren dinamikak eta komunitatea sendotzeko tresna eraginkorra izango baita.

Bestalde, Itziarko Eskola Txikia Oinherri Herri hezitzaileen Sareko kide da eta haurren ahotsa ahalduntzeko asmoz, Haurren Partehartze Kanala iraunkorra martxan jarri du Lehen Hezkuntzako laugarren, bosgarren eta seigarren mailatan.

Info gehiago:

www.itziarkoauzoudala.eus

Instagram: @itziarkoauzoudala

943 19 92 55

ERAKUNDE PUBLIKOAREN HAUTAGAIK

Itsaso Herria

“Sindikatoa” Herri denda



Itsasoko Alegia auzoko Sindikatoa dendak formatu berritzaile batekin zabaldu ditu atea. Izan ere, saltzailerik gabeko denda autonomia da. Ekoizleen eta bezeroen arteko elkargune izateko jaio da: ekoizleek zuzenean hornitzen dute denda, eta bazkide diren herritarrek, behar bezala identifikatuta, nahi duten unean sar daitezke erosketak egitera.

Dendaririk gabeko formula zerbitzuari eusteko eta haren bideragarritasuna indartzeko hautatu da. Itsaso 600 biztanle inguruko herria denez, gertuko zerbitzua funtsezkoa da eguneroko erosketak herrian bertan egin ahal izateko, autoa hartu beharrik gabe, eta aldi berean tokiko ekoizpenari irteera emateko.

Zerbitzuak, beraz, erosketak erraztuko dizkie herritarrei, bereziki mugikortasun zailtasunak dituztenei edo egunerokoan denbora justuarekin dabilatzanei. Ekoizleentzat ere abantaila nabarmenak ditu, produktuak

saltzeko gune fisiko egonkorra eskaintzen baitie. Horrela, Sindikatoa denda tokiko ekoizpena balioan jartzeko eta merkaturatze-bide laburrak indartzeko tresna eraginkorra da.

50 bazkiderekin ekingo dio ibilbideari, gehienak itsasoarrak. Ezkioko, Gabiriako eta Ormaiztegiko erroldatuek, baita Itsason lan egiten dutenek ere bazkide izateko aukera izango dute.

Azken batean, Sindikatoa landa-eremuko jasangarritasunaren aldeko apustu praktikoa da: tokiko ekonomia aktibatzen du, ekoizpena balioan jartzen du, zerbitzuak hurbiltzen ditu, eta komunitatearen kohesioa sendotzen du.

Info gehiago:

<https://gitb.eus/itsaso>

www.itsaso.eus

Instagram: @itsasoko_udala

udala@itsaso.eus

943 47 77 90

ERAKUNDE PUBLIKOAREN HAUTAGAIK

Saiaz Mankomunitatea



Saiaz Mankomunitateak Albiztur, Beizama, Bidania-Goiaz eta Errezilgo herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea du helburu, gizarte-zerbitzuak koordinatuz eta herritarrentzako informazioa, orientazioa eta aholkularitza emanez. 1994ko martxotik dago martxan proiektua, eta gaur egun 1.600 herritar baliatzen dira zerbitzuaz. Mankomunitateak lau herrietako pertsonekin, taldeekin eta komunitateekin egiten du lan, programa eta prestazio ezberdinen bidez. Horrela, landa-udalerrri txikiek elkarlanean jardunez zerbitzu publikoak modu eraginkor, hurbil eta iraunkorrean antolatzeke gaitasuna dutela erakusten da. Udal bakoitzak bere kabuz bermatzeko zailtasunak izango

lituzkeen zerbitzuak -gizarte-zerbitzuak, berdintasuna, euskara, kultura eta komunitate-garapena- ikuspegi partekatu batetik kudeatzen dira, tokiko errealitateei erantzunez eta landa-ingurunearen berezitasunak erdigunean jarrita. Saiazek, beraz, lurralde-kohesioa indartzen du, herritarren ongizatea bermatzen laguntzen du eta despoblazioaren aurrean landa-bizitza duina eta bideragarria dela erakusten du. Horregatik, Gipuzkoan erreferentziazko proiektu bihurtu da.

Info gehiago:

www.saiaz.eus

saiaz@saiaz.eus

943 68 11 28 / 943 68 10 98

ERAKUNDE PUBLIKOAREN HAUTAGAIK

Beizamako Udala



Beizamak, Gipuzkoako herririk txikienetako batek, landa-eremuen etorkizunerako mugarri izan nahi duen ekimena jarri du abian: Bizi Beizaman proiektua.

Beizamako Udalaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetzari esker, despopulazioari eta etxebizitza faltari erantzutea da helburua, herrian bizitzeko ez ezik, bertan lan egiteko baldintza egokiak ere eskainiz.

Proiektuaren ardatz nagusia alokairu sozialeko 12 etxebizitza eraikitzea da, Ongi etorri Beizamara izeneko arkitektura-proiektuaren barruan. Etxebizitza horiek lan-eremuak edo tailerrak izango dituzte, eraikin berean telelana, ekintzailatza edo artisautza bezalako jarduerak sustatzeko. Horrela, Beizama logela-herri bihurtzea saihestu eta tokiko jarduera ekonomikoa indartu nahi da. Horrez gain, herrian dagoen etxebizitza-

eskaerari erantzuteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak -Etorlur sozietatearen bidez- lau etxebizitza tasatu eraikiko ditu.

Eraikinak jasangarritasun irizpide zorrotzekin diseinatuta daude: A energia-kalifikazioa, aerotermia eta eguzki-argia aprobetxatzeko orientazioa izango dituzte, eta herriko arkitektura tradizionalarekin bat egingo dute. Gaur egun, exekuzio-proiektua amaitzen ari dira, eta aurreikuspenen arabera, obrak 2027an hasiko dira.

Proiektuak nazioarteko aitortza jaso du; 2025ean New European Bauhaus saria eskuratu du udalerrri txikien kategorian.

Info gehiago:

neweuropeanbauhaus.es/bizi-beizaman

www.beizama.eus

Instagram: [@bizibeizama](https://www.instagram.com/bizibeizama)

udala@beizama.eus

628 11 15 85

DOKUMENTAZIOA ETA WEBORRIAK

FACEBOOK: Landaola
X: @Landaola_
YOUTUBE: LANDAOLA GIPUZKOA
INSTAGRAM: @Landaola_

LANDA GARAPEN ELKARTEEN WEBORRIAK:

www.landaola.eus
www.behemendi.eus
www.debagaraia.eus
www.debemen.eus
www.goimen.org
www.tolomendi.eus
www.urkome.eus